

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea udalaren 11 zenbakiko zerga ordenantzaren 6. eranskinaren aldaketa; eranskin horrek arautzen du erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa, udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik ordaindu beharrekoa

Udalbatzak, 2022ko apirilaren 27an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa, udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik ordaindu beharrekoa arautzen duen 11 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 6. eranskinaren aldaketari (2022/S01.07.00.03/5espediente), eta 2022ko maiatzaren 6ko 52 zenbakiko ALHAOn eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17-3 artikuluan. Horrela, bada, jendauerrean jartzen da zerga ordenantza horren testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70-2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak) 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Hona hemen testua hitzez hitz:

UDALAREN 11 ZERGA ORDENANTZAREN 6. ERANSKINA, AMURRIOKO JABARI PUBLIKOAK MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN MODU PRIBATUAN ERABILTZEAGATIK EDO MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA

Artikulu bakarra. Udalerriko jabari publikoan mahai hankabakarrak, mahaiak, aulkiak eta antzekoak jartzeagatik tarifa hauek ordaindu beharko dira:

Honako tarifa hauek aplikatuko dira, kontuan hartuta instalazioak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ondorioetarako zer zerga eremutan dauden:

- 1 eta 2 zerga eremua: 31,08 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).
- 3 zerga eremua: 23,76 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).
- Gainerako zerga eremuetan: 16,44 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).

Lizentziak berez luzatuko dira urtero, interesdunak berariaz uko egin ezean. Lizentzian ezartzen den aldiagatik kobratuko da tasa; aldirik ezartzen ez bada, urte osoa kobratuko da, benetako okupazio zein den gorabehera.

Tasa okupaziorako lizentzia ematen denean sortuko da; lizentziarik ez badago, lurzorua okupatzen denean sortuko da.

Tasa hau ordaindu behar dute bide publikoak testu honetan aipatzen diren elementuekin okupatzeko lizentzia eskuratzen dutenek, bai eta lizentziarik gabe bide publikoa halako elementuekin okupatzen dutenek ere. Ordaindu beharra dute, ordea, okupatzen duten establezimenduetako jabeek edo titularrek.

Eskatzen diren kuotak ezin dira murriztu eta ez dira hainbanatuko aprobetxamenduaren iraupenaren arabera; salbuespena: lizentzia berrien kuotak hainbanatu ahal izango dira, eskaera garaiz eta behar bezala aurkeztuz gero. Kasu hori ez zaie aplikatuko okupazioa murriztea dakarten lizentzien aldaketei.

Lizentziaren baja edo eskualdaketa eskaeren eragina gertaera hori udalari berariaz eta idatziz jakinarazi osteko urtarrilaren 1etik aurrera izango da, establezimenduaren behin betiko itxierak eragindako baja eskaeretan izan ezik, haien eragina eskaeran jasotako egunetik aurrera izango baita. Azken kasu horretan, establezimenduaren itxiera data agertzen ez bada, bajak hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ez dute tasa ordaindu beharrik edukiko, harrera eta ekitaldi publikoetan agintari eta erakunde publikoen erabilerarako diren instalazioek eta ongintzarako direnek, udalak hala adierazten badu.

Udalaren edo interes orokorreko beharizanengatik edo hirugarrenen ezinbesteko afekzioengatik, aprobetxamenduaren titularrek ezin badute okupatu hamabost egun natural baino gehiagotan, zerga likidazio berriak egingo dira, negatiboak, txosten teknikoa egin ondoren hasieran egindakoak osatzeko eta aprobetxamendua behar bestekoa ez dela izan kontuan hartzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Aldi baterako eteten da udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziengatik tasa arautzen duen 11 zenbakiko udal ordenantza fiskalaren 6. eranskinaren aplikazioa, 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era arte. Sei hilabeterako emandako lizentziei, 2022ko maiatzaren 1etik urriaren 31ra bitartekoei, 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dagoen ordenantzaren 2022ko uztailaren 1etik urriaren 31ra bitarteko aldirako adierazten diren tarifak aplikatuko zaizkie, aipatutako ordenantzaren jasotzen diren baldintzekin. Urtebeterako (2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra) emandako lizentziei, 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dagoen ordenantzaren 2022ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako adierazten diren tarifak aplikatuko zaizkie, aipatutako ordenantzaren ezarritako baldintzekin.

AZKEN XEDAPENA. Udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen 11 zenbakiko udal ordenantzaren 6. eranskina 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da hura aldatzea edo indargabetzea onetsi arte.

Amurrio, 2022ko ekainaren 20a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA